

Oi **laborari** gaixoa,
Hihaurek jaten artoa
Ogi eta ardo geinatzen auherren asetzekoa,
Halere hain haie maite nola artzainak otsoa.

Orai **ürüleak** oro
Idorrian nahiago.
Hanitx lan agertü beharrez, hari'oro txori lepo;
Hallikatzen balinbadüzü, zehian laur oropilo

Ehülea hari galto,
Ükenik ere han franko;
Ondar harien ebatsi nahiz oihal'üzten zerratzeko,
Fornizaliri erraiteko hariak zütüala gaixto.

Eskalanpu egileak
Ebasten dütü materiak.
Zazpira sos balio düana saltzen beitü hamabia:
Ostatüan jan heien saria eta etxen gosez familia.